



Lurraldea kontzeptu garrantzitsua da pertsonen eta komunitateentzat. Bertan eraikitzen dute bizitzari eusteko oinarria (elikadura, bizilekuak, bideak, harremanak). Euskal Herriaren kasuan, lurraldeak badu hainbat aldagai egungo egoera ekarri dutenak. Kokapena, atomizazio administratiboa eta historia sozioekonomikoak eragin handia izan dute, aukera garrantzitsuak eta arazo larriak bizitzen ari gara. Horiek aztertuz (adostasun eta desadostasunak), etorkizuneko agertokiak zehaztu eta zenbait jarduera ildo proposatzen ditu.

Giltza-Hitzak: Lurraldea. Ekonomia. Lurralde antolamendua. Lankidetzeta. Osagarritasuna. Iraunkortasuna. Segregazioa. Metropolizazioa.

Lurraldea inguru naturala eta identitatearen baturatik sortzen omen da. Beraz, lurraldeari aipamena egitean, ezinbestean, izaera soziala, kulturala duen kontzeptu bat baliatzen ari gara.

Lurraldeaz zuten ezagutza baliatuz elikatzen ziren lehen gizaki komunitateetatik gaurdaino lurraldearen erabilera eta kontzeptualizazioa aldatzen joan da. Egun lurralde eremu berean erkidego multikomunitario eta multikulturalak bizi dira, historian beste inoiz ez bezala. Komunitate guztiek ez dute jokabide bera bere baitako aniztasunaren aurrean. Jokabide horren muinean lurraldearen gainean eraikitzen den kontakizuna edo erlatua dago. David Thunder irakasleak Kongresuaren Iruñeko lan saioan (19-10-26) aipatu moduan, “erkidego modernoek lurralde mailako kontakizun legitimo eta erakargarria bilatu behar dute”. Gure herriaren erronka ere bada, are gehiago nozitzen duen atomizazioarekin.

Inork pentsa lezake ariketa hori “lokalista” edo partikularra dela, baina Jean Pierre Claveranne irakasleak Baionan Kongresuak izan zuen saioan (19-10-05) azpimarratu zuen, “Euskal Herriari mundu hobeago bat egiteko bere Lurralde proiektua lantzea dagokio”. Alegia, Euskal Herriari dagokio kohesio soziala eta iraunkortasuna aintzat hartuko dituen giza-garapen handiko lurraldea izatea.

Beraz, Kongresu honetan lurraldea hizpide hartuta, euskal populuarentzat lurralde narratiba legitimo eta erakargarria osatzeko gakoak bilatzeari ekin diogu, gure errealitate xehetik XXI. mendeko erronka handiekin lerratzeko bidea erakutsiko diguna.

1. Ezinbesteko ikuspegia

“Lurralde estrategiak eta iraunkortasuna” izendatu dugun ardatzaren baitan galdera nagusi bat dago, zer hartu behar dugu kontuan kontzeptualki eta praktikoki hurrengo hamarkadetan euskal lurraldeak egin beharreko bideari erreparatzen diogunean? Erantzunak gure lurraldean diren komunitateei (hiri, udalerrri, bailara...) iraunkortasuna eskaini behar die, hauen neurria edozein dela ere.

Kongresu honek ezin dio iskin egin egoera historiko jakin bati: lehen aldiz azken berrehun urteotan euskal lurralde guztiek dute aitortza instituzionala eta bere lurralde eremuan jarduteko eskumen graduren bat. Hau da, aspaldiko paradarik egokiena dugu herritargoari eta tokian tokiko komunitateei lurralde eredu iraunkor bat eskaintzeko moduari buruz gogoeta egiten eta gauzatze bidean jartzeko. Izan ere, gabezia horrek, besteak beste, gure lurraldeaz paradigma komunak eraikitzea eragotzi digu. Ez dago luzaz azaldu beharrik gure herritik at hartutako zenbait erabakik eragin dituzten ondorioei buruz, XX. mendean batez ere. Liburu Berdeak horietako hainbat jasotzen ditu eta ezagunak dira Gaindegia lurralde mailan egindako analisi sozioekonomikoen emaitzak.

Abiapuntu honek hainbat mailatan eskatzen ditu erantzunak. Euskal lurraldeen gaineko ikuspegi komuna garatu eta elkarren arteko lankidetzaz indartzeko moduari buruz batez ere, baldin eta lurralde kohesionatu eta erresilientea izatera iritsi nahi badugu. Baina baita lurralde ereduari buruz ere, zeinak antolamendu eta diseinu sozioekonomikoaren aldetik formula berriak gorpuzteko aukera eman behar diguten.

Bide hau egiteko, ordea, Euskal Herriak ondare garrantzitsua du, bere kapital soziala, edo nahiago bada, tokian toki adostasunak eraiki eta konpromiso kolektiboak eraikitze gaitasuna. Hego Euskal Herrian 80ko hamarkadan ez zatekeen posible izango industria ehuna berritzea konpromiso maila altua eta kontzientzia kolektiborik gabe. Halaber, Ipar Euskal Herrian, aitortza instituzionalik ez izan arren, komunitate

moduan osatu eta lurralde estrategia iraunkorra osatzea lortu dugu bertako eragile sozial eta ekonomiko ugariaren konpromisoari esker.

Lurralde garapenari buruzko ikasgai nagusia gudan dago, norbanako zein organizazioetan: herri erantzunak gorpuzteko tresnarik eraginkorrena tokian tokiko adostasunetatik abiatzen da, konpromiso kolektiboetatik eta estrategia inklusiboetatik. Partikularretatik tokian toki adostasunak eraikitze gaitasuna da gako.

2008ko gertakari ekonomikoek eta bere ondorioek herri xedea eta lurralde ikuspegia duten erantzunak osatzeko premia agerian jarri dute. Atzeraldiaren ondorioak hainbat alorretan adierazi dira, sozial, ekonomiko zein lurralde mailakoetan. Gure egia ugari dantzan jartzeraino astintzen dituen ingurumarian gaude.

Lurralde mailako auziek berekin dakartzate beste hamaika gai, denak elkarrekin estu txirikordatuak. Geure buruari galdetzen diogu zein den gure egitura produktiboak egin beharreko bidea bere transizioan aurrera egiteko, ekonomia iraunkorreraino eramango gaituena eta hein berean iraunkorra lurralde osorako. Zertan gauzatzen da helburu hori gure lurralde aniztasunari dagokionez? Nola heldu eraginkorrak izatera ekonomikoki, sozialki zein lurralde mailan? Halaber, nola uztartuko ditugu baikorki eremu metropolitarrak gero eta zabalagoa eta gero eta ahulagoa den landa eremua? Bideragarriak al dira jarduera ekonomiko jasoenak gaitasunak lurralde eremu jakinetan metatu gabe? Zein izan behar da lurralde estrategia inklusiboari dagokion gobernantza eredu? Eta hortik, gai izango ote ginateke lurralde ikuspegi komuna edo partekatua eraikitze gaitasuna?

Agerikoa da, lurraldea dela herri ororen oinarria. Honen baitako erantzunak lurraldearen indargune eta ahuleziak aintzat hartzea eskatzen du. Inguru fisikoaren, bere komunitateen eta egitura formalen araberakoak izan ohi dira egitasmoak.

Honaino helduta, etorkizunari begira ikuspegi argia izan behar dugu lurraldearen gainean eragiterik goazenean. Izan ere, bere lurraldeaz eta honen dimentsio komunitarioaz jabetzen den herritargoa izaten jarraitu behar dugu. Alde batetik baloreak eta ongizate ereduaren ideia konpartitzen dituen, bestetik lurralde arteko egitura eta esperientzia ugari osatutako dinamikak dituen (Kongresu amaierako ekitaldian Jean Rene Etxegarai Baionako auzapezak esan moduan “elkar ulertzen

hasten gara elkarrekin pentsatzen jartzen garenean”) eta lurralde oreka zaintzen duena. Beti ondare naturala gordeaz eta hurrengo belaunaldietan jasotakoa itzuliaz.

2. Berehalako etorkizunaren erronkak

Herri garen aldetik, aurrean ditugun erronkei erreparatuz, dimentsio globala dutenak eta dimentsio lokala dutenak bereiztea eskatzen du.

Hala eta guztiz ere, aipagai guztiak ez daude erronka moduan sailkatzerik. Badira erronka mailakoak, baina baita joera moduan agertzen direnak ere, edo ezaugarri argirik izan gabe, nabarmetzen hasi diren gaiak. Ondoren datorren erronka eta aztergaien zerrenda gogoeta eta eztabaida lasairako gidalerroak izan nahi lukete. Horregatik, hain zuzen, diogu ez dela agenda itxia edo aldaezina.

- **Lurraldeen arteko harreman sozioekonomikoak trinkotuz lurralde atomizazioa gainditzea.** Erresiliente eta ekomikoki aktiboa izango den lurraldea gorpuzteko ezinbesteko urratsa da lankidetzaren sozioekonomikorako eta instituzionalerako espazio bat eraikitzea. Euskal Herriarentzat helburu egingarria da erregio izaerako lurralde dinamikak biziaraztea, egungo lurralde egiturak harreman sozioekonomiko zein soziokulturalak errazteko balio izan behar du, maila gorenera eramanez lurralde arteko lankidetzaren eta osagarritasuna.
- **Lurralde oreka eragin.** Gure geografian desoreka handienak eragiten dituzten joerak gaitu eta lurralde banaketa egokiagora iritsi (baliabideena, jarduerena eta pertsonena). Metropolizazio prozesuak ezin du lurraldearen gainerako eremuak deskapitalizatzeko bide bihurtu. Metropolizatuta ez dauden eremuen ahultzearekin amaitu nahi bada (landa eremuak batez ere, baina ez hauek bakarrik) funtsezkoa da lurralde banaketa berri baterantz jotzea, izaera erregionala izango duena, landa eremuak indartuko dituena (komunitateak, bere jarduerak eta egiturak), bai eta hauek eremu urbanoekin duten osagarritasuna ere.
- **Norabide horretan, landa eremuak berezko eginkizunak hartu behar ditu** (eta horren aitortza jaso), horrek metropoliarekiko osagarritasunean jardutea ahalbidetuko

baitio, bai elikagai osasuntsuen ekoizpenean, bai ondare natural zein kulturalaren zaintzan.

- **Iraunkortasuna eta erresilientzia gauzatzeko bideak jartzea.** Lurraldearen gaineko interbentzioek komunitateen iraunkortasuna ahalbidetu behar dute, bere egiturako ezaugarrietan eraginez. Auziak ugari dira, eremu bakoitzak bereak, baina nabarmena da eremu metropolitarretan zein landa eremuetan bizi dugun segregazioarentzat erantzunak aurkitzeko beharra.
- **Konektibitate eraginkor eta iraunkorra behar.** Konektibitatea bihurtu da paradigma berriaren erakusgarri. Gure herria Europa atlantiarraren ardatz nagusietan kokatuta dago betidanik (itsas zein lehorreko bideei dagokionez) horrek dakartzen ondorio eta aukera guztiekin. Gure iraunkortasuna gauzatzeko lanik handienak eremu horretan jokatu dira. Euskal lurraldea askotarikoa izanik, konektibitate eredu eraginkorra eta iraunkorra (fisikoa zein birtuala) behar dugu, lurraldeak, pertsonak eta organizazioak harremanetan jartzen dituenak, hauek lurraldean duten eragina orekatuz. Izan ere, hiriburuen arteko konektibitate handiaren ondoan eskualde buru askoren konektibitate ahulak lurralde dinamika orekatzaileak eragozten jarraitzen du. Are gehiago banaketa administratiboak tarteko direnean.
- **Gobernantza eredu kolaboratiboak aplikatzea.** Tokian tokiko estrategien diseinu eta exekuzioan tokiko eragileak inplikatzeko eta erabakiak bere egitea behar dugu (administrazioa, enpresa elkarrekin, sindikatuak...). Helburu hori bideragarri egiten duten prozesu eta jokamoldeak behar ditugu. Hala eta guztiz ere, horrela jokatzeko ikuspegi desberdinak eta askotan kontrajarriak daudela onartzea eskatzen du. Halaber, subsidiaritatearen ezinbesteko pauso moduan onartu beharra dago. Gobernantza eredu kolaboratiboak behetik gorako ekimenak behar ditu, bai eta hauek gainerako maila formalek onartu eta laguntzea ere.
- **Lurralde lehiakortasunak estrategia konplexuak behar ditu.** Enpresen lehiakortasuna eta lurralde lehiakortasuna nahasi ohi ditugu. Ikuspegi hau gaitu beharra dugu, ordea. Lurralde eremu baten garapenera erreparatzean egiturako auziak aintzat hartu behar ditugu, hala nola, tokian tokiko komunitatearen ongizatea, baliabideak zein

indarrean dauden baldintza sozioekonomikoak. Horrek politika ekonomiko bertikalak gauzatzea eskatzen du (lan harremanetarako esparru propio bat gorpuztea, esaterako, eskubideak bermatu eta lana banatuko duena), bai eta lurralde espezializaziorako ekimenak martxan jartzea ere enplegua sor dezaketen sektore “bigunetan”.

- **Horrezaz gain ezagunagoak diren beste gai batzuk ere badaude gure agendan**, hala nola: ekonomiaren deskarbonizazioa eta desmaterializazioa; xede soziala lehenesten duten enpresen indartzea, bai eta sarean garatutako ekonomia kolaboratiboa ere; enpresen barne kudeaketa eredu horizontalagoen ezarpena, edo enplegu sortaile indartsuak diren sektoreak sustatzea (zerbitzu pertsonalak, elikadura, industria kreatiboak eta aisialdia...). Ildo hauek ere lurralde estrategiari lotuta datoz.

3. Haintzat hartzeko indarguneak

Euskal Herriak indargune garrantzitsuak ditu lurralde estrategiari begira. Aipatzekoak dira:

- **Kokapena.** Atlantikoaren hegian kokatua izateak, Pirinio mendikatearen iparraldeko muturrean eta Ebro ibaiaren lautadak hegoaldean, kontinenteak eta Pentintsulak bat egiten duten lekuan, Paris-Algeciras ardatz betean. Zalantzarik gabe, pertsonen eta salgaien mugimendurako kokapen indartsua du Euskal Herriak, eta horrek halaber, zuzenean lotzen gaitu munduarekin eta gure garaiarekin.
- **Ondare natural aberatsa** eta klimatologia bikoitzak inguru osasuntsua ematen digute, bai eta elikagaiak ekoizteko gaitasun berezia ere. Esan gabe doa, euskal herritargoa bere inguru naturalaren balioaz oso jabe dela bai eta berau konterbatzeko premiaz ere, nahiz eta galera garrantzitsuak izan dituen azken hamarkadetan.
- **Lurralde egitura polinuklearra**, lurraldea orekatzen laguntzen duena. Euskal gizartea hiriburu eta eskualde buruen inguruan egituratutako komunitate lokaletan gorpuztu izan da. Lurralde desorekak gero eta nabarmengoak badira ere, gaur gaurko Euskal Herriak gune dinamiko ugari ditu lurraldearen luze zabalean. Aipatzekoa da, askotariko lurralde egitura hori identitate handiko lurraldeek osatzen dutela; kapital sozial

garrantzitsuz egituratuak. Hamarkadaz hamarkada erronka berrien aurrean eraginkortasun handia erakutsi duten ezaugarriak.

- Era berean kapital sozial hori oso emana da **ekintzaitetza**, autoeraketa, eta lankidetzara. Halaber, bertako instituzioek konfiantza maila handia jasotzen dute herritarrek osatutako sare horietatik. Bertako instituzio eta bere eskumenen defentsak zein bertan erabakitzeko eskubideak gehiengoak biltzen dituzte.
- **Lurraldeen arteko osagarritasuna**, gune urbano dinamikoak, landa eremuak eta bien artean kokatutako eskualde buruek lurraldeen artean osagarritasun handiz jokatzeko aukera eskaintzen dute. Osagarritasuna helburu utziezina da iraunkor eta erresiliente izatera heldu nahi duen lurralde ororentzat.

4. Adostasun eta desadostasunekin aurrera

Herri moduan bizi dugun atomizazioa gaintuz lankidetzara eta osagarritasunerako proiektu egokiak abian jarritz gero, gure lurraldetasunak iraunkorra izatera heltzeko norabidean pauso sendoak emango ditu.

Liburu Zuria osatzeko burutu dugun parte hartze ariketak hiru eratako auziak azaleratu ditu, hala nola, lurralde arteko lankidetzari dagozkionak, ondaren naturalaren zaintza eta lurralde antolamenduari dagozkionak, eta lurraldearen gainean gauzatu beharreko estrategia ekonomikoari dagozkionak (zertan jarri lehentasuna, non kokatu eraginkorrak izateko, nola berriro jarduera ekonomikoak ondare naturalari ez erasateko...).

Badago adostasun gradu handi bat zenbait kontzepturen inguruan, segurki, iraunkortasuna da horietako bat, lurraldeen arteko lankidetzara da beste bat. Ez dira gutxi izan, halaber, landa-gunea zaindu beharra azpimarratu dutenak ere. Ikuspuntu hau oso lotuta etorri da elikagai osasuntsuen ekoizpenari zein baliabide naturalen eta ondare kulturalaren zaintzari. Esan daiteke, etorkizuneko lurralde estrategiak ezinbestean iraunkorra eta kooperatiboa izan beharko duela euskal herritarren oniritzia jasotzekotan.

Geure buruari galdetzen diogu, ordea, zein da lurralde estrategia eraginkorrena? Gaitasunak eta jarduerak gune gutxi batzuetan kontzentratzen dituen lurralde osoa horren arabera

antolatuz, ala lurralde egitura aintzat hartuz antolatzen duena jarduera ekonomikoa? Lehenak lurralde eredu metropolitarrak dakar, kontzentrazio maila handikoa, baina kohesio sozialari erasaten diona. Bigarrenak, lurralde polizentrikoa, jarduera ekonomikoa lurraldearen indarguneetan oinarrituz hedatzen dituena, baina jarduera produktibo aurreratuenak garatzeko masa kritikoa biltzen zailtasunak dituena. Auziaren erantzunak ezinbestean konplexua izan behar du, bi aukera horien arteko osagaiak biltzen dituena. Egungo metropolizazioaren garapen maila handiak eta gainerako lurraldeen egoerak eztabaida handiko gai bihurtzen dute.

Bi auzi horietatik, beraz, desadostasunerako aukera handiak dituzten hainbat hari azaleratzen dira, hala nola:

- **Espezializazio ekonomikoa** Europako Batasunak ezartzen dituen lehentasunetara mugatu ala gure herri xedeari erantzun dioten beste sektore batzuetara ere hedatu? Gure indarguneak edo gairitu beharreko ahuleziak ditugun eremuetara, alegia. Galdera ez da nolanhikoa, horrek sustapen ekonomikora bideratutako baliabide publikoen orientazioan eragin baitezake.
- **Gobernantza eredu eta subsidiaritatea.** Azken batean, oro har, adostasun gradu altua egon da tokiko eragileek protagonismo handia izango duten gobernantza eredu baten alde, baina eredu horrek eskatzen duen subsidiaritate mailaz eztabaidatzean, kateatu egiten gara, zer dagokio bakoitzari? Lurralde estrategian ere, XXI. mendeak tokiko eragileen parte hartzea eta erabakitze eskubidea indarrean jartzea eskatuko du.
- Antzera esan daiteke **konektibitateaz**, gune nagusiak lotzen dituen konektibitate fisiko azkarreko lurraldea bihurtu da Euskal Herria, baina garraio publikoan atomizazio administratiboa gairitzeko gai ez dena. Etorkizunean egoera hau indartzen jarraitu behar dugu? Eta noiz hasiko gara konektibitate fisiko birtualarekin osatzen eta horrela desplazamendu motorizatuak murrizten? Edo muga administratiboak gairituz, bailaren arteko konektibitatea indartzeko modu berriak indarrean jartzen?
- Honek guztiak, halaber, **baliabideen distribuziora** garamatza. Etorkizunean lurraldean egiten den baliabideen distribuzioak egungo polo nagusietara makurtuko da ala distribuzio berri bat bilatuko du, gainerako lurraldeak

indartzeko? Alta, konektibitateak zentro nagusiak indartzeko helburua izango du (gainerakoak horren mende hartuz), ala bestelako harremanak erraztuko ditu (sistema erradialaren ordez transbertsalari leku eginez), lurralde orekatuago baterantz jotzeko.

Esandako guztiak herri garen aldetik gure komunitatearentzat agertoki gauzagarriak ikustera eraman behar gintuzke. Lurralde estrategiaren aldetik hona zenbait ardatz:

- **Lurralde oreka bilatzen duten ekimen estrategikoak** abian jartzea. Ikuspuntu honek landa gunea identifikatu eta funtzio aitortuak ematea eskatzen du, ondoren eremu urbano eta metropolizatuekin osagarritasunean jardun dadin. Jorratu beharreko arloak bat baino gehiago dira. Besteak beste, udalerrri txikiak biztanleria, ekonomia edo ongizatea indartzen lagunduko duten planak abian jartzea (inguru menditsuenetan batez ere). Lehen sektoreak protagonismo berezia izan beharko du horretan. Udalerrri txikiak bezala, eremu urbano eta metropolizatuaren ongizatea bermatu eta oreka segregazioak gairitzeko egitasmoak beharko dira.
- **Iraunkortasun paradigma berriak** indarrean sartuko dira baldin eta ondare hori gorde eta belaunaldi berrien esku jartzera iritsi nahi badugu, baina horrek egungo joerak aldatzea eskatzen du, besteak beste, inguru naturalaren artifizializazioan edo atmosfera kutsatzen duten jardueren murriztean. Esandakoaz gain, lurraldean eragiten duten hainbat portaera berbideratu beharko dugu.
- Lurraldea biziberritzeak **egitasmo ekonomiko dibertsifikatua, osagarria eta eraginkorra** eskatzen du. Hau da, eraginkortasun handieneko jardueren ekosistema egokiak behar dituzten bezala, enplegu gehien eragiten duten sektoreek, onura soziala dakarten egitasmoek edo tokian tokiko indarguneak balioan jartzeko ekimenek sustapen berezia beharko dute lurraldea bere luze zabalean indartzeko.
- Euskal lurraldeen eta **euskal komunitatearen iruditegi komuna** landu eta banatzen gaituenean baino batzen gaituzten elementuetan oinarritzeko aukera. Edozein giza talde kohesionatzeko komunitate sentimendua sustatzea ezinbestekoa da. Hala, identitate sentimendu desberdinak ulertu, azaleratu eta bideratuko dituen iruditegi komuna

eztabaidatu eta eraikitzea proposatzen da, Euskal komunitate globalaz gain, etorkinak eta haien seme-alabak barneratuko dituen.

- Euskal lurraldeen arteko kohesioa eta elkarkidetzari dagokion zoru komuna sozialki, ekonomikoki eta politikoki eraiki beharko litzateke, euskal lurraldeetako aniztasuna aberastasuna dela bezala barneratuz. Euskal lurraldeak kohesionatzeko, guztion bizitza duina garatzeko oinarritzko baldintzak partekatuko dituen herritargo ahaldundua ezinbestekoa da. Hau da, funtsean, euskal herritartasuna sendotzeko aukera aintzat hartzea.
- Euskal herri mailako egitura partekatuak eraikitzeko aukera; horrenbestez, elkarkidetzaren gakoa den lankidetzeta eta kohesioa sustatzeko egitura partekatuak bultzatzea garrantzitsua da. Egitura hauek arlo eta jendarte eremu desberdinetan sustatu beharko lirakeela pentsatzen da. Bai eta erakunde publikoen esparruan ere. Lankidetzeta eta osagarritasunak euskal herria garapen sozial handiko lurralde erresiliente izatera eraman dezakete, eta gaur egungo atomizazio artifiziala gainditzera, Europako Batasunak daraman erregionalizazio bideak aukera interesgarriak eskainiko ditu, baldin eta bide horretan jarriko gaituzten adostasunak eraikitzeko gai bagara.

Geure buruari galdetzen diogu, ordea, zein da lurralde estrategia eraginkorrena? Agenda betea dugu aurrean:

Lurralde oreka gauzatzeko bidean jartze aldera

- Landa gunea identifikatu eta funtzio aitortuak emango dizkion ekimen instituzionala abian jarri, Landa ingurunearen estatutua zehaztu.
- Udalerrri txikietako biztanleria, ekonomia edo ongizatea indartzen lagunduko duten planak abian jartzea.
- Metropolizazioak eragindako lurralde segregazioak aitortzen dituen ekimen instituzionala abiatu.
- Lehen sektorea indartzeko balio izan dezakeen ekintza ildo estrategikoa abian jartzea eskualdez eskualde (herritarren elikadura kulturaren eragin, landa lurragorke, ekoizpena handitu, bertako produktuen merkaturatzea indartu...).

- Tokian tokiko egitasmoak sustatzea, bertako kapital sozialean eta adostasun sendoetan oinarrituz, beti ere erabakitakoa errespetatuz (subsidiaritatea).

Iraunkortasun paradigma berria indarrean jartze aldera

- Landa lurra artifizializazioetatik legez babestu (ondare naturala gordetzea, elikagaiz autohornitzeko oinarria baita), inguru urbanoetatik hurbil daudenak batez ere.
- Ingurua kaltetzen duten jarduerak ahalik eta gehien murriztea eta ordezeko praktikak indarrean jarri. Adostasun soziala eraiki eta ordenamendu juridikoan txertatu.
- Etorkizuneko Euskal Herriaren irudi konpartitua eraiki ezaugarri hauek balioan jarriaz: ondare naturala eta landa gunea dinamikoa, trantsizioa helburu duten iraunkortasun paradigmak; jarduera ekonomiko aurreratuak eta erresilienteak lurralde osoan.
- Zirkuitu laburra duten salgaien kontsumoa sustatzea, bertako elikagaiena batez ere. Besteak beste, eskualdeetako elikadura kontseiluak sortu, bai eta elikaduraren behategia ere.

Lurraldea luze-zabalean indartuko duen egitasmo ekonomikoa garatze aldera

- Espezializazio inteligenteko estrategiatik kanpo geratu diren sektoreen azterketa egin eta hauen balizko onurak zehaztu.
- Landa eremuetan jarduera endogenoak sustatzeko egitasmo komunitarioei eta tokiko sektore ekonomikoiei zuzendutako programak indarrean jarri.
- Xede soziala duten jarduerak eta enpresa moldeak sustatu, besteak beste, zaurgarritasun handiko sektoreei zuzendutako arloetan.
- Gune metropolizatuetan, segregazio egoera larriena duten zonaldeak biziberritu eta indartzeko egitasmoak abian jarri.
- Lurraldeen arteko interakzio ekonomikoa sustatuko duten egitura sozioekonomikoak eta aktibitateak errazteko plan estrategikoa plantan ezarri.

Euskal komunitatearen iruditegi eta osagai komunak sendotze aldera

- Euskararen eta kulturaren balio kohesionatzaileak ekarriko lituzkeen abantailak irudikatu eta zabaltzeko proposamena. Hizkuntz politikari, eta bereziki euskalduntze prozesuari, garrantzia eman elementu kohesionatzaile izan dadin.
- Eragile ekonomiko eta sozialak lurralde arteko lankidetzan jarduteko sustapen politikak abian jarri, besteak beste, asoziazionismoari lotutako legediak egokituz.
- Euskal hezkuntza-sistema, sare profesionalak eta enpresarialak, hedabideak zein komunitate zientifikoa artikulatzeko aukera lantzen hasi.

Euskal lurraldeen mapa mentala indartzeko tresnen inguruan deliberazio publikoa abian jarri: euskal markatik (barnera/kanpora begira), gure historiaren ezagutzara edo euskal sistema komunikatibora.

Euskal herritartasun komuna bultzatze aldera

- Prozesu deliberatibo eta demokratikoen bidez, behetik gorako dinamikak sustatuz euskal herritarron bizitza duina bermatuko duten zutabe edo estandar komunak ezarri, “euskal ongizate sistema” lurralde guztietan partekatzeko.
- Euskal lurralde guztietako jendarte kohesioan laguntzen duten politika publikoak martxan jartzeko proposamenak landu, lurraldeen arteko oreka soziala, ekonomikoa eta politikoa lortzeko.
- Europan dauden gobernantza demokratikoko egiturak erabili eta balioetsi herritartasun komunera begira: batik bat, Europar Batasuneko lankidetzeta eta integrazio tresnak.

Kultura politiko eta demokratiko komun berria sustatze aldera

- Jasandako gatazka egoeratik eta bizipenetatik ikaspenak balioetsi. Gatazka gainditzeko sortutako tresna eta ekimenak –iparraldeko eta hegoaldeko jendarte ekimenak uztartu dituztenak–, ezagutarazi eta “euskal balio sistema” sendotzeko erabili.

- Euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzan sakondu jomuga izango duen prozesu eratzaile parte hartzailea abian jarri.
- Euskal lurraldeen arteko lankidetzeta esperientziak eta saretzeak ahalbideratu ekimen zehatzen bitartez: eragile sozioekonomiko, kultural eta lokalen artean, bereziki.

Euskal Lurraldeen egituratze partekatua bideratze aldera

- Elkarren arteko ezagutzarako eta lankidetzarako estrategiari lotutako Euskal lurraldeen kohesioa sendotzeko tresnen, eskumenen eta “baliabideen mapa” irudikatu.
- Euskal erakundeen eskumen partekatzeari, ardatzen trinkotzeari eta egituratze eraginkorrari buruzko gogoeta lan-ildoak abiatu euskal erakundeetan.
- Finantza tresna propioak eratu euskal lurraldeen arteko kohesioa sendotzeari begira. Ildo beretik, Euskal Lurraldeen kohesioaren mesedetan emateko diru funtsa egituratu.
- Eusko Ikaskuntzari eginkizun berezia esleitu euskal lurraldeen kohesio eta elkarkidetzari buruzko eztabaidan, erakunde aholku emailea eta eztabaida sozialaren kudeatzaile den aldetik.